

Euskal AEko industria-jarduera % 0,1 hazi da 2024ko abuztuan


Aurreko hilaren aldean industria-produkzioa % 0,5 gehitu da

Eustatek landutako datuen arabera, 2024ko abuztuan, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Euskal AEko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino % 0,1 handiagoa izan zen.

Aurreko hilaren aldean, Euskal AEko industria-jarduera % 0,5 gehitu da azken hilabete honetan, dagozkion urtaroen ondorioak zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Kontsumo-ondasunen* produkzioak urte arteko portaera negatiboa izan du 2024ko abuztuan, eta produkzioa % 1,6 jaitsi da sektore osoan. Beherakada hori *Kontsumo-ondasun iraunkorren* eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* portaerak eragin du, % 9,6 eta % 0,3 jaitsi baitira, hurrenez hurren. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* artean, altzariak eta etxeko tresnak fabrikatzea sartzen da, besteak beste. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* artean, bestalde, elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta jantziak egitea daude.

Ekipo-ondasunen produkzioa % 0,2 igo da aurreko urteko abuztuaren aldean; horrek lbigailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aeronautika edo ontzigintza barne hartzen ditu.

Bitarteko ondasunetan, metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne, produkzioa % 1,9 igo da.

Azkenik, *Energiaren* produkzioa % 3,1 jaitsi da 2024ko abuztuan, aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Abuztua 2024

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	0,1	-0,2	0,5
Araba/Álava	3,8	-1,7	2,9
Bizkaia	-1,3	-1,4	-0,3
Gipuzkoa	-0,3	1,8	0,0
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	-1,6	-1,9	-0,2
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-9,6	-7,0	-0,9
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-0,3	-0,8	0,0
Ekipo-ondasunak	0,2	2,9	-1,9
Bitarteko ondasunak	1,9	-1,3	2,0
Energia	-3,1	0,2	-1,7

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtarritetik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2024ko Urriaren 3a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Industria-Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera, 2024ko abuztuan, positiboa izan da Araban, produkzioa % 3,8 igo baita. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, industria-produkzioa % 1,3 eta % 0,3 jaitsi da, hurrenez hurren.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Abuztua 2024

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	0,0
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-1,5
Kautxua eta plastikoak	-1,4
Metalurgia eta produktu metalikoak	4,7
Materiala eta tresna elektrikoak	-1,6
Makineria eta tresneria	-0,5
Garraio-materiala	-6,5
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-6,7

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2024ko Urriaren 3a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2024ko abuztuan produkzioa urte artean igo den bakarra *Metalurgia eta metalezko produktuak* izan da, % 4,7rekin. *Elikagaien, edarien eta tabakoaren industrien* sektorean, produkzioa 2023ko abuztuko maila berean mantendu da. Aitzitik, produkzioaren urte arteko jaitsierarik handienak *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 6,7) eta *Garraio-materiala* (% 6,5) sektoreetan kontzentratzen dira.

2024ko ABUZTUKO BALANTZE METATUA

Urteko lehen zortzi hilabeteetako metatuan, Industria-Produkzioaren Indizea % 0,2 jaitsi da. Abuztura arte metatutako produkzioa % 1,9 jaitsi da *Kontsumo-ondasunetan* eta % 1,3 *Bitarteko ondasunetan*. *Ekipoko ondasunek*, aldiz, bilakaera positiboa metatu dute, produkzioa % 2,9 igo baita aurreko urteko aldi metatu beraren aldean. *Energian*, bestalde, abuztura arte metatutako produkzioa % 0,2 igo da.

Lurralde historikoka, 2024ko lehenengo zortzi hilabeteetako metatua balantze negatiboarekin itxi da Araban eta Bizkaian, produkzioa % 1,7 eta % 1,4 jaitsi baita, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aldiz, produkzioa % 1,8 gehitu da, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **89,29ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

[C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz](#)

[Prentsa-zerbitzua: \[servicioprensa@eustat.eus\]\(mailto:servicioprensa@eustat.eus\)](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62